


5. KANALAK

Zorionbide, ezkontzak antolatzen dituen gure enpresa, kokatzeko, komunikazio- eta sustapen-kanal batzuk hautatu ditugu, jakin badakigulako pertsona bakoitzak inspirazioa eta zerbitzuak modu desberdinetan bilatzen dituela.


Lehenik eta behin, **lokal** bat dugu alokaturik, gure bezeroentzako benetako topagune eta inspirazio iturri gisa funtzionatuko duena. Espazio hau Zorionbideren esentzia transmititzeko diseinatura egongo da: dotorezia, berotasuna eta profesionaltasuna. Gure dendan, bikoteak gurekin bildu ahal izango dira beren ideiak eztabaidatzeko, diseinu-aukerak ezagutzeko eta ezkontza ideala irudikatzeko. Gainera, ekitaldi txikiak eta erakustaldi eskusiboak antolatuko ditugu bertan, gure zerbitzuen eskaintza zabaltzeko.

Bestalde, sare sozialek funtsezko papera izango dute gure estrategian:

- **Sare sozialetan (Instagram eta TikTok)**, antolatu ditugun ezkontzetako irudi ikusgarriak, bideo dinamikoak, bikoteentzako aholku praktikoak eta gure lanaren garrantzia nabarmentzen duten une bereziak argitaratuko ditugu. Gainera, hemendik (Instagram edo TikTok) ere gurekin kontaktatu dezakete bezeroak.



<https://www.instagram.com>



<https://www.tiktok.com>

Horrez gain, **marketin tradizionalagoa** ere erabiliko dugu:

- **Flyerrak** sortuko ditugu, gure zerbitzuen xehetasun guztiak laburbilduz. Flyer hauek diseinu dotore eta erakargarriak izango dituzte eta banatuko dira bikoteen arretarik gehien duten tokietan, hala nola, ezkontza-azoketan, hoteletan, lore-dendetan eta argazkilari espezializatuen estudioetan.

https://drive.google.com/file/d/1EO1Le7HYK_Lo4dHE9BTWuwawROtUz52

(Hauek dira flyerrak, euskaraz eta gazteleraz daude. Lehenego biak gazteentzako dira eta azken biak adineko pertsonentzat dira).

- Gainera, **webgunea** izango dugu, non gure bezeroek zerbitzu guztien informazio zehatza aurkituko dute: zerbitzu pertsonalizatuak, gurekin lan egiten duten hornitzaileak,...

<https://sites.google.com/ategorribhi.com/zorionbide?usp=sharing>
(Web orria)

- Eta ere, gmail kontu bat dugu, egun osoa irekita egongo dena, bezeroen zalantza guztiak ondo argitzeko eta haiekin erraz kontaktatzeko. Gure gmail kontua hau da: ZorionBide1@gmail.com (baita ere web orrian aurkitu dezakete gure bezeroak).
- Telefonoa daukagu: **668 35 11 00**

Azkenik, **hiriko gune estrategikoetan publizitate-kartelak** jarriko ditugu. Kartel hauek diseinu erakargarri eta argiak izango dituzte, eta gure zerbitzuen kalitatea nabarmentzeko mezu laburrak eta zuzenak eskainiko dituzte. Horrela, 50 urtetik gorako publiko helduagoa ere erakarriko dugu, adin-talde horretako pertsona askok ez baitute sare sozialik erabiltzen. Kartelak leku ikusgarrietan kokatuko ditugu, hala nola, autobus-geltokietan, merkataritza-guneetan eta hiriko erdigunean.

https://drive.google.com/file/d/1MkcOYO_bOkbh5WG-RzaPma876GBUVXW8/view
(Hauek dira kartelak)

Zorionbideren helburua komunikazio bide tradizionalak eta digitalak modu orekatua uztartzea da, publiko anitz bati iritsi eta gure zerbitzuak ezagutarazteko.

→ BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA:

Zorionbideren lokaleko ordutegia honela antolatuta egongo da:

- **Astelehenetik ostegunera:** 08:00 - 14:00 eta 17:00 - 20:00
- **Ostiral eta Larunbatetan:** 08:00 - 13:00 (arratsaldez itxita)
- **Igandeetan:** Itxita



Ordutegi hau, gure bezeroekin aurrez aurre (lokalean) hitz egin ahal izateko eta gauzak adosteko diseinatuta dago. Ostiraletan eta larunbatetan, ezkontzak antolatzen eta ospatzen emango dugu denbora (hau da, ez gara lokalean egongo). Ondorioz, egun horietan gure presentzia lokalean mugatuagoa izango da, baina eskuragarri jarraituko dugu eguneko 24 orduetan, posta elektronikoz eta telefonoz, edozein kontsulta edo larrialdi egiteko. Zure esanetara gaude, beti zure ezkontza perfektua izan dadin!